

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

OSALAN

1. Deialdia, 2018an prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko diru-laguntzei buruzkoa 2
2. Laneko arriskuen prebentziorako ikerketa proiektuak diruz laguntzea 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Deialdia, 2018an prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko dirulaguntzei buruzkoa

2.- Araua

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA, 149. zenbakia, 2018ko abuztuaren 3koa).

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 6koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 2018rako laguntzen deialdia, ekitaldi honetan EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten entitate publiko zein pribatuentzat (EHAA, 167. zenbakia, 2018ko abuztuaren 30ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

125/2018 DEKRETUA (EHAA, 149. zenbakia, 2018ko abuztuaren 3koa).

HUTSEN ZUZENKETA, 125/2018 Dekretuarena (EHAA, 177. zenbakia, 2018ko irailaren 13koa).

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 6koa (EHAA, 167. zenbakia, 2018ko abuztuaren 30ekoa).

EBAZPENA, 2019ko martxoaren 15ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2018ko abuztuaren 6ko Ebazpenaren babesean emandako dirulaguntzen zerrenda. Ebazpen horren bitartez argitaratu zen 2018an EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten entitate publiko zein pribatuei zuzendutako dirulaguntzen 2018ko deialdia. (EHAA, 79. zenbakia, 2019ko apirilaren 26koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzioaren arloko ordezkariak gaitzeko oinarrizko mailako prestakuntza eman nahi duten erakunde publiko zein pribatuei deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Erakundeen betekizunak: Hezkuntza sistemak, Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek edo egiaztatuta dauden prebentzioko zerbitzuek aitortutako eta homologatutako zentroak izatea.



Oinarrizko prestakuntzari buruzko prestakuntza-ekintzak jaso behar dituzte, osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko lanbidearteko akordioan ezartzen dena betez. Bi atal izan behar dituzte: lehenengoa 16 ordukoa, araei buruzko informazioarekin, eta bigarrena 32 ordukoa, prestakuntza teknikoari buruzko informazioarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko deialdian 37 prestakuntza-erakunde egiaztatu ziren; horietako 25ek Bizkaian eman dezakete prestakuntza, 17k Gipuzkoan eta 13k Araban.

Guztira 33 ikastaro egin dira, araei buruz: 8 Araban, 17 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan. Prebentzioko 537 ordezkari prestatu dira (346 gizon eta 191 emakume).

Guztira 25 ikastaro egin dira, arlo teknikoari buruz: 7 Araban, 13 Bizkaian eta 5 Gipuzkoan. Prebentzioko 384 ordezkari prestatu dira (249 gizon eta 135 emakume).

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Arauei buruzko ikastaroen kp.	50	33
Arlo teknikoari buruzko ikastaroen kp.	50	25
Ikasleen kp.	1.200	921

Ezin izan dira ezarritako helburuak bete, Osalanen esku ez dauden hautaketa-dinamiken ondorioz; horregatik ez dira bete.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneko arriskuen prebentziorako ikerketa proiektuak diruz laguntzea

2.- Araua

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusiarena. Horren bidez, laneko segurtasunaren eta osasunaren eremuan ikerketa-proiektuak egiteko diru-laguntzen emakida arautu da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018003391>
[http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/res/2018/10/25/\(1\)/dof/eus/html/](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/res/2018/10/25/(1)/dof/eus/html/)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneko arriskuen prebentzioari lotuta ikerketa, garapen eta berrikuntza programak prestatzea, sustatzea eta garatzea.

Hartzaileak: Egoitza EAEn duten pertsona juridiko publikoak eta pribatuak.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino; baina gehienez 50.000 euro.

Gauzatzeko denbora eta epea: Diruz lagunduko diren jarduerak urtebetean gauzatu beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

5 eskaera aurkeztu ziren, eta 2 proiekturi eman zitzaien laguntza.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzen deialdia	1	1
Diruz lagundutako proiektuak	10	2